

...eta

# Kitto!

943 zkio.  
2015-IX-25



## Berbetan lotsa barik

# EUKi

ARTEKARITZA

Toribio Etxebarria, 1 - behea  
943 20 42 99

**AUTOAREN ASEGURUA**  
*preziorik onenean*



C  
A  
P  
I

CAPI

Zaintzen Zaitugu

Bidebarrieta, 5

Tel. 943 201 547

ESTETIKA ZENTROA ETA LURRINDEGIA

IRUDI AHOLKULARITZA

Kolare  
azterketa

70€

VISAGISMOA

Makilaje  
lkastaroa  
+  
Aurpegiaren  
azterketa

60€

IRUDI AHOLKULARITZA

Formen  
azterketa

60€

bestelako



ZERBITZUAK

**GORPUTZ TRATAMENDUAK**  
**AURPEGI TRATAMENDUAK**  
**MASAJEAK**  
**BETILEEN LUZAPENA**  
**LASER DEPILAZIOA**  
**MANIKURA ETA PEDIKURA**

**Berria**Ipini zaitetz sasoi onean astero  
bakarrik 20 minutu eginez5 saioko  
bonoa  
135€10 saioko  
bonoa  
250€Powered by  **BODY**JARRAITUIGUZU:  facebook.com/capiestetica**Urriak****3****zapatua**

*Sagardo  
Eguna*

**EIBARREN**  
**(Untzagan)**

12:00-14:30  
 19:00etatik aurrera



Alorrenea  
 Altueta  
 Barkaiztegi  
 Begiristain  
 Egi-Luze  
 Gartziategi  
 Gaztañaga  
 Gurutzeta  
 Isastegi  
 Olaizola  
 Sarasola  
 Zapiain  
 Zelaia

antolatzailea:



laguntzailea:



## ASTEAN ESANAK

"Premiazkoa da makinei eskaini behar dizkiegun printzipio etikoei inguruan hausnartzea, hau da, roboten etika sortzea. Robota izan daiteke berez gidatzen den autoa interneten bidez poltsan inbertitzen duen programa den modu berean. Asimov-en robotikaren hiru legeek honela diote: 1) Robot batek ez dio gizaki bati minik egingo eta ez du lagako minik hartu dezan; 2) Robot batek gizakiaren aginduak jarraituko ditu beti, 1. legearen aurka ez badoaz behintzat; 3) Robot batek bere burua babestuko du, 1. eta 2. legeen kontra ez doan neurrian. Hori horrela, ikus dezagun adibide bat: Bost lagun pasatzen dira errepede batetik. Auto autonomoak bidaiari bakarria darama. Frenatzen badu, segurua da ia bost hildako eragingo dituela. Ezkerreko errailera badoa, aurrez aurre datorren kamioiarekin egingo du talka eta ia segurua da autoaren bidaiaria hil egingo dela. Azken erabaki hau hartu behar du? Bat hilko litzateke, bost izan beharrean. Zeinek erosiko luke bera hiltzeko prest dagoen autoa, nahiz eta horrela beste bizitza batzuk salbatu? Nor erabaki behar du autoak izan behar duen etika? Zer gertatuko litzateke beti auto autonomoaren bidaiaria salbatzeko aldarazitako kopia piratak sortuko balira? Badago zer hausnartu, ezta?"

(FELIX ARES,  
ZIENTZIALARIA)

"Atentzioa eman badu ere EHUko abesbatzak Urkulluren aurrean eskaintako 'Agur jaunak' kantuaren aldaera berriak, ez da kontu berria. Aldaketak aspaldi hasi ziren eta, dirudienez, doinua ez da hain gurea. Izan da Vienan aditu duenik, baita Britainia aldean ere"

(FELIX IBARGUTXI,  
KAZETARIA)

## Gure aurrekoek erabiltzen zuten eusquera

**KONTU HOBIA EUKI.**- Gauza bat, nahiz eta beste bat baino garestiagoa izan, egiten duen zerbitzuagatik azkenean hobeto edo merkeagoa irteten denean. "Kontu hobia dauka sarri, gehixago pagatzen dan gauziak".

**KONTURA.**- Epetan, epeka. "Ogixa eta ardaua ataratzten zittuan kontura Burunian".

## eskutitzak

### TXURRUTETIK AMETSERA

Kaixo, Txurruetako lagun guztiok!!! Eta lagun diot, ezen, bederatzirte urte hauetan benetako lagun talde zabal ederra osatu baitugu elkarrekin: barixakueta-ko poteoa, domeketako habanerak, eguenetako gauak, gure Aratostiak, arkupeetako bazkariak... Ezin pozago eta zeharo harro nago bezerotzat eta laguntzat zuek edukitzeagatik, zuen alaitasunagatik, zuen egote jakin horregatik eta zuen maitasunagatik.

Baina gauza guztiak izaten dute euren hasiera eta akabera, eta Txurru taberna ere iritsi da bere amaierara. Tristura handia ematen dit hura uzteak, demaseko pena, eta zisko eginda egongo nintzateke esandako guztia Ametsa tabernan egiten jarraitzerik izango ez bagenu.

Dakizuen moduan, bada urtebete Ametsa taberna hartu nuenetik, baina nire asmoa ez da leku berri horretara Txurruetako ontziteria eta tragoak bakarrik eramatea, ez, inondik inora ere ez! Hirurok goaz: Arrate, Ibai eta ni. Zuek denok ere nire ondoan nahi zaituztet bidaia txiki honetan, pausu gutxi batzuetako bidaia, Ametsera doana.

Eta gertaera horiek biok gure erara ospatuko ditugu, zelan ez! Badakizue: hilaren 27an, domekan, Txurruari agur egin eta merezi duen bezalako agurra eskainiko diogu. Eta eguaztenean, 30ean, berriro Ametsa inauguratuko dugu.

Agur Txurrua! Ongi etorri, Ametsa!

GUADA

### ...eta kitto! aldizkari zaharrak sarean

[www.egoibarra.eus](http://www.egoibarra.eus) webgunean ikus daitezke Ego Ibarra batzordeak digitalizatu eta sarean jarri dituen "...eta kitto!" aldizkari zaharrak. 1988ko abendutik 1991eko abendura bitartean, Udaleko Euskara Sailak argitaratu zituen "...eta kitto!" hilabetekariak. Sasoi hartan aldizkariak tabloide formatoa zuen eta herriko kiosko eta leku publikoetan banatzen zen. Fernando Muniozgueren zuzentzen zuen Euskara Saileko kideek kazetaritza-ikasle gazteen laguntza izan zuten argitalpena kalerratu ahal izateko. 1992an ...eta kitto! Euskara Elkartearen sortu zen eta bere gain hartu zuen aldizkaria kaleratzen jarraitzeko ardura.



Euskara Elkartearen

**ARGITARAZTZAILEA:** ...eta kitto! Euskara Elkartearen. **HELBIDEA:** Urkizu, 11 - solairuartera. 20600 Eibar  
**TELEFONOAK:** 943 20 67 76 / 943 20 09 18. **FAXA:** 943 20 28 72.  
**Astekararen E-MAILak:** [erredakzioa@etakitto.eus](mailto:erredakzioa@etakitto.eus) / [komunikabideak@etakitto.eus](mailto:komunikabideak@etakitto.eus) / [publizitatea@etakitto.eus](mailto:publizitatea@etakitto.eus) **Elkartearen E-MAILak:** [elkartea@etakitto.eus](mailto:elkartea@etakitto.eus) / [normalizazioa@etakitto.eus](mailto:normalizazioa@etakitto.eus)  
**ERREDAKZIO-KONTSEILUA:** Ana Aizpurua, Itziar Albizu, Jose Luis Gorostegi eta Silbia Hernandez.  
**ADMINISTRAZIOA:** Marisol Uriarte. **KOORDINATZAILEA:** Ana Aizpurua.

**ERREDAKZIO-BURUA:** Silbia Hernandez. **DISEINUA ETA MAKETAZIOA:** J.L. Gorostegi.  
**ARGAZKI ARLOA:** Leire Iturbe eta S. Hernandez. **HIZKUNTZA ARDURA:** Juan Andres Argoitia eta Maider Aranberri.  
**PUBLIZITATEA:** Itziar Albizu eta Belen Ulazia. **Tfnoa:** 943 20 67 76. **AZALEKO ARGAZKIAK:** Silbia Hernandez  
**BANAKETA-ARDURADUNA:** Ainhoa Luz. **TIRADA:** 8.050 ale. **INPRIMATEGIA:** GERTU koop. (Oñati).  
**COPYRIGHT-A:** ...eta kitto! **LEGE-GORDAILUA:** SS/430/92. **ISSN:** 1132 - 1679  
("...eta kitto!" k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)



EIBARKO  
UDALA



Gipuzkoa  
BERRIA

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA (HIZKUNTZA  
POLITIKARAKO SAILBURUORDEZTA)

Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzako  
Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak DIRUZ LAGUNDUTAKO ALDIZKARIA

## Astelehenian abiatuko dira Sanmiguelak

San Miguel bezperia astelehenian izango da eta, hori gogoratzeko, 18.00etan kanpai errepika egingo dabe Aginagan, auzoko ermittan. Eta martitzenian, San Miguel egunian goizeko 11.00etan meza nagusixarekin ekingo detse egunari. Eguardixan luntxa eskinduko dabe eta umiendako jolasak be prestatu dittue eta, eguneko programia agurtzeko, betiko moduan Usartza txistulari bandiaren partehartzia eukiko daben herri-bazkarixa hasiko da 14.00etan. Jaixa astegunian izanda be, asteburuan segiduko dabe jaixa ospatzen, Agiña alkartekuak urriaxaren 3 eta 4rako preparau daben programiari jarraituta.



Karta jokuan iazko edizifuan. LEIRE ITURBE



## Marea bizixak Geoparkean

Irailleko marea bizixak dirala eta, Euskal Kostaldeko Geoparkeak hiru urteera gidatu eskinduko dittu marearteko zabalgunia ezagutu nahi dabenendako. Domekan (hillaren 27xan) egingo dira urteera bi eta hirugarrena, barriz, datorren martitzenerako antolatatu dabe. Urteerak preparau dittuenak diñenez, "zalantza barik, ikusmin haundixa sortzen daben gertaeria da eta Euskal Kostaldeko Geoparkeko marearteko zabalgunia ezagutzeko aukera

paregabia eskintzen dau". Domekan, Deban, Sakoneta inguruan egingo da urteeretako bat, euskeraz eta bigarrena, barriz, Zumaixan (gaztelera). Bixak 10.00etan hasiko dira. Eta martitzenian atzera be Zumaixan hasiko dabe bisita gidatua (gaztelera), 11.00etan. Bisitaren iraupena 3 ordu eta 15 miñutukua da eta erreserbak online egin leikez, geoparkea.com webgunian edo, nahixago izanez gero, Mutriku, Deba eta Zumaiaiko Turismo Buleguetara juanda.



## Miren Gallastegi izango da Senaturako burua

Eguaztenean jakinarazi zutenez, PSE-EEK Miren Gallastegi eibartarra aurkeztuko dau Senaturako zerrendako lehen postuan abenduan egingo diran Espainiako Hauteskunde Orokorretarako. Azkeneko hainbat legingintzaldixetan ziñegotzixa izan zan Eibarko Udalian eta azken udal hauteskundietan, bestalde, alkategaixan izan zan Antzuolan.



## Josu Mendikute EAJ-ko bozeramaillia udalian

Aurreko astian prentsaurrekuan aditzera emon eben aurrerantzian Josu Mendikute izango da- la EAJ-ko Udal Taldeko bozeramaillia eta, horrekin batera, taldeko koordinaziñua Elena Ibañezek bere gain hartu dabela be azaldu eben. Julixuan Eva Juezek legebiltzarkide kargua hartu ebala eta, alderdi jeltzaliak izendapen barrixak egitteko erabagixa hartu dau. Mendikutek eta Ibañezek eurengan ipiñi daben konfidantzarengaittik esker ona azaldu eben eta ardura barrixekin pozik agertu ziran. Bestalde, heritik kanpora be izan da izendapen barririk, udan Iker Laka eta Ivan Iriondo eibartarrak EGI-ko lurralde kontseilluko kide izateko aukeratu zittuen eta.



## Eibarko mexikarren urteroko bazkarixa

Irailaren 16xan ospatzen dabe Mexikon Independentzia Eguna ("Doloresen garrasixaren eguna" be esaten detse), halako egunian 1810. urtian lortu ebalako herrialde horrek bere independentzia eta, horren aitzakixarekin, urtero bazkarixa antolatzen dabe Eibarren eta inguruan bizi diran mexikarrak, famelixak eta lagunak aldamenian dakela. Azken urtiotan egingidakuaren bidetik, erretratuan ikusten dittuzuenak aurreko zapatuan alkartu ziran Karmen kaleko Denon Sahatsa alkartian eta edarto pasau eben eguna, Mexikoko janarixarekin gozatzan, kantatzan eta lagunartian kontu-kontari.

## Sagardo Eguna gerturatzen doia

...eta kitto! Euskara Elkartaren eskutik aurten 22. edizioa beteko daben Sagardo Eguna astelehena aurkeztu eben Ipur sagardotegixan Maider Aranberrik eta Anartz Mitxelenak. Urtero bezala urriko lehen zapatuan, urriaren 3an ospatuko da Sagardo Eguna Untzagan, goizez 12.00etatik 14.30-xetara eta arratsaldez 19.00etatik hasi eta sagardo guztia amaittu arte. Azken urtiotako martxari jarraituta, Gorenak Sagardoak osatzen daben 13 sagardotegixetako sagardaua dastatzeko aukeria izango da egun osuan. Barritasunak egongo dirala aurreratu eben: "Udaletxiaren aldia betiko moduan sagardaua edan eta pintxuak jateko aukeria izango dau jendiak eta beste plazan, berriz, hiru sagardogille egongo dira eta, gaiñera, matxaka eta dolarea ipiñiko dittugu jendiak prozesua bertatik bertara ezagutzeko eta urtetzen juango dan muztiua edateko aukeria eukitzeko. Horrez gain, sagar klase ezberdiñekin erakusketia ipiñiko dogu". Egitaraua biribiltzeko txalapartariak eta musika eskolako soiñujoliak jardungo dabe eta umiendako jokuak be antolatu dittue. Tiket nagusixak 6 euro balixoko dau eta, urteroko moduan, horren trukian edalontzixa, zapixa, pintxua eta txotx-a izango dira. Eta bakarrik pintxua nahi dabenak (txorizua eta gazta menbrilluarekin) 1'5 eurotan horretarako tiketa erosteko aukeria eukiko dau. Antolatzailien berbetan, "egun horretan 2.340 sagardo botilla, 200 kilo txorizo eta 15 kilo gaz-



Mitxelenak eta Aranberrik aurkeztu eben datorren zapatuko Sagardo Eguna. SILBIA HERNANDEZ

ta banatuko dittugu. Horrelako eguna antolatzea posible egiten daben guztieri eskerrik emon nahi detsaguz, bai laguntzera etortzen dan 60 bat laguneko lantaldiari, bai udalari, Ipur sagardotegixari, Gorenak alkartari eta beste guztieri".

### Dastaketia eguaztenian

Bestalde, egunerako girotzen jua nahi dabenendako sagardo dastaketia antolatu dabe datorren asteko eguaztenerako (irailaren 30erako), 19.00etan Ipur sagardotegixan. Egoitz Zapiainen eskutik egingo dan saiuan parte hartzia duan izango da, baiña bakarrik 15/20 bat lagunendako tokixa egongo danez, jua nahi dabenak izena emon biharko dau 943200918 telefonora deittuta edo ...eta kitto! Euskara Elkartetik pasatuta (Urkizu, 11 solairuartea).

## autuan

### VALLE TABERNAK 100 URTE

Estaziño kaleko Valle tabernia zabaldu ebela 100 urte beteko dira datorren hillian eta, hori ospatzeko, ekitaldi berezixak antolatu dittue: urriaren 2xan (barixakuan) Tor magoak (Sorgintxulo) umiendako ikuskizuna eskinduko dau, 19.30xetan; urriaren 9xan, barriz, Juanma Canok DJ saiuu egingo dau 19.30xetatik aurrera eta pintxo-pote espeziala egongo da; urriaren 16xan Jerez de la Fronteratik etorriko dan adituak urdaiazpiko iberikuarekin degustaziñua eskinduko dau; eta urriaren 17rako bazkarria eta kalejirak preparau dittue. Danaren barri zihetzagua hurrengo asteko alian emongo dogu.



### JUBILAUEN ALKARRETARATZIA

Datorren asteko eguena (urriak 1) Nagusixen Eguna izango dala eta, Eibarko jubilauak alkarrataratzia deittu dabe 19.00etarako Untzagan, jubilau etxiaren aldamenian, pensiño duiñen alde.

Zure enpresa erakusteko leku aparta

**GIDA**  
KOMERTZIALA 2016

Eibarko ETXE GUZTIETAN eta herriko komertzio, enpresa, bulego, ikastetxe, osasun-zentro... guztietan banatzen da

eta  
Astekaria

publizitatea@etakitto.eus  
943 20 67 76  
www.etakitto.eus

GIDA 2016

Funeraria-Ehortzetxe  
**Mugica**

**EIBAR**  
Beilatokia  
Funeuskadi Eibar:  
Otaola, 27

**ELGOIBAR**  
Beilatokia:  
SIGMA Industrialdea  
(Olasoko hilerriaren ondoan)

Bulegoa Eibarko erdialdean  
Bulegoa Bidebarrieta, 20

24 orduko zerbitzu iraunkorra  
943 20 19 51 www.funeuskadi.com

Euskadiko Lehen Ehortze Taldea

GRUPO Funeuskadi

## Eibar-Barajas autobus zerbitzu zuzena

asteko  
64.621  
datua

euro erabili ditute  
Jardiñetan, Argatxan,  
Unberako bidian eta  
Aginaga auzuan LED argiak  
ipintzeko. Horrerik esker  
orduko 78.658 KW aurrezia  
eta urteko gastua  
11.000 eurotan murriztia  
aurreikusi dabe.

Astelehenian ipiñi eben martxan gure herrixa Madrilgo aireportuarekin zuzenian lotzeko autobus zerbitzu barrixa. Oin arte Irun eta Madril lotzen zittuan Alsa enpresak astelehenaz geroztik gurekua dauka gurian be: autobusa Ego-Gain kalia hartu leike, arratsaldeko 16.40xan eta Barajasa 21.30xetarako aileguko da. Madrildik Eibarrerako zerbitzuak, bestalde, honako ordutegixan eskintzen dabe: handik goizeko 09.15ian urtenda, Ego-Gainera 14.15ian aileguko da autobusa. Autobus zerbitzu horren prezia 30 eurokoa da eta jua-entorrixa egiten dabenak justu bikoitza, 60 euro pagau biharko dattu. Informaziño gehixa-



Zerbitzuak egunero funtzionatuko dau eta, Barajasen geratziaz gain, Madrillen bertan be izango dau geltokixa.

gorako eta erreserbak egitteko Alsa autobusen web orrixan sartu ([www.alsa.es](http://www.alsa.es)).



## Giro edarra Legarreko jaixetan


Aurten be zoragarri pasau dabe Legarreko jaixetan, Arrajolape jai batzordekuak esan deskuenez: "Eguraldixa lagun, demaseko girua izan genduan auzuan. Asteburua kirol, dantza eta kantu artian pasau genduan. Horregaittik etorritako guztieri eta batez be auzokueri eskerrak emon nahi detsaguz". Bestalde, zozketan saritutako zenbakixak hónetxek dirala emon dabe aditzera: 722 (lehelengo sarixa, Chalcha jatetxian afarixa), 231 (bigarrena, Gure Lekun afarixa) eta 650 (hirugarrena, Deporren afarixa).

## Arrate izenekuak hurrenguren zain

Aurreko asteburuan, domekan ospatu eben euren jaixa Arrate izenekuak eta, eguna primeran pasau eta gero, datorren urtiari begira ipiñi dira danak, urtian behin alkartzten dittuan jaixak 2016xan 20. ediziñua beteko dabelako eta, jakiña, modu berezixan ospatu nahi dabelako. Bixen bittartian, aurtengo ediziñuan umore ona eta jai-girua izan ziran protagonista Arraten egin zittuen joko eta bestelako guztietan.



Pelota partiduak giro berezixa ipiñi eban frontoian. LEIRE ITURBE



**JUAN LUIS  
Ulazia Landa**

4. urteurrena (2011-IX-25)


"Gure artean ez bazaude ere,  
GUREKIN zaitugu BETI"

ETXEKOAK



Apurka apurka eta zorionez, urtero euskaraz sortutako filme kopurua eta kalitatea handituz doa. Iaz Jon Garaño eta Jose Mari Goenegaren "Loreak" filma ikusi ahal izan genuen Donostiako Zinemaldiko Sail Ofizialean.

Aurten, bigarren aldiz jarraian, euskeraz egindako beste film luze bat izan da, Asier Altunaren "Amama". Gainera, film labur askoz gehiago ekoizten dira eta horren adibidea Eibarren bertan daukagu: Ane Urkiola eibartar zinemagile gazteak "Zea... Bingo!" film laburra grabatu zuen martxoaren amaieran eta datorren hilean ikusteko aukera izango dugu. Eibartarrak zuzentzen duen lehenengo filma da eta lantaldean beste 4 eibartar daude.



## ANE URKIOLA (zinemagilea):


# "Zine zuzendariak galdera askori erantzuna ematen jakin behar du"

**- Zea... Bingo! film laburra urrian ikusi ahal izango dugu, Euskal Herri mailako beste proiektu baten bame. Zer aurreratu ahal diguzu filmari buruz?**

Komedia beltza da. Donostiko Hotel Londresen dago kokatuta. *Harrerako emakumearen pasioa bingoan jokatzea da, baina bere helburua ez da aberatsa izatea, beste bat bai-zik.* Genero hibrido da: umore absurdoa eta beldurra nahasten dira.

**- Nola bururatu zitzaizun proiektu hau egitea?**

Gidoia lehendik idatzita eta "kajoian" gordeta nuen. Gero, iragarriak produzitzen hasi nintzen. Jende asko ezagutzeko aukera izan nuen, eta tekniko eta aktoreak zirikatzeko hasi nintzen proiektuan sartzeko. Izaskun Arandia Izar Filme-



**Zea... Bingo! urrian ikusi ahal izango da beste proiektu baten bame.**



**"Zea... Bingo!" Ane Urkiolak zuzentzen duen lehenengo filma da. Telebista eta zine produkzioan dauka esperientzia eta, nahiz eta erraza ez izan, komunikazio eta zinema munduan segitzea gustatuko litzaioke.**

seko ekoizlearekin egon nintzen eta proiektua bere gain hartu zuen. Horretaz gain, "crowdfunding" bat egin genuen, hau da, sarean 2.000 euroko dirulaguntza eskatu genuen, eta segituan lortu, gainera! Ekipoa lankide eta lagun artean osatzea lortu genuen, bata besteari motibatzen. Guztira 30 izan gara, horietako 5 eibartarrak, ni bame: Haritz Lete, aktorea; Aitor Maguregi, argazki laguntzailea; Natalie Garrido, arte zuzendaria eta Aiora Zugasti, maki-llatzailea.

**- Errodajera egun bakar batean egin zenuten...**

Bai, domeka baten grabatu genuen dena, Hotel Londresen. Nahiko gogorra izan zen, 19 ordu jarraian jardun genuen lanean! Dena oso ondo antolatuta eraman genuen errodajera, egun hori besterik ez genuen-eta. Horrelako lanetan zuzendariak denetik egi-

ten du: gidoiaz gain, produzioko gauza asko egin nituen, errodaje materialak aldatzen lagundu nuen, aktoreekin entsaioak, afariak eta bazkariak jarri... dena. Eta grabatu ondoren montaje lana dator. Zailena daukazu material guztiaren artean aukeratzea da: batzutan toma bat ona da antzezpen aldetik baina beste bat hobea da soinu aldetik. Dena orekatu eta onena hartzen saiatu behar duzu. Postproduzio horretan soinu ere ezinbestekoa da. Terrorean soinuak pisu handia hartzen du, ez bada ondo egiten beldurgarria

baino gehiago barreagarria suertatzeko arriskua dago. Saiatu gara soinu asko fintzen. Azkenean ordu asko dira atzera eta aurrera! Hau paella baten modukoa da: egon zaitezke denbora pila bat lana ondo egiten, eta gero 10 minututan jaten da. Zine zuzendariak galdera askori erantzuna ematen jakin behar du.

**- Nolako garrantzia du istorioak film batean?**

Guztiaren muina kontatu nahi duzuna da; hortik hasten zara pertsonaiak garatzen, argia aukeratzen, argazkia, soinu, jantziak... Eta ezinbestekoa da lortu nahi duzuna ekipo guztiari transmititzen jakitea. NIK produkzioan daukat esperientzia eta horretan eroso sentitzen naiz, baina nire pasioa beti izan da idaztea, istorioak kontatzea eta komunikazioa.

**- Lan-talde oso gaztea eta emakume ugari...**

Errodaje gehienetako kideak 40 urtetik gorakoak eta gizonezkoak izaten dira. Gu, hasieratik, emakume portzentaje altu bat sartzen saiatu ginen. Emakume eta gazteen aldeko apostua egin dugu. Gainera, niretzako ere erronka bat izan da, izan ere emakume zuzendari gutxi daude.

**- Posible de baliabide gutxirekin horrelako lan bat egitea?**

Ez da erreza, gutxieneko diru-kopurua behar duzu lana finantzatzeko eta ekipo on bat sortzeko. Jendea kobratu gabe dago lanean eta saiatu behar duzu baliabide ahalik eta onenak ipintzen, ekipoa ondo zaintzen eta gauzak fin egiten. Film laburretan oso dirulaguntza gutxi daude. Jendea badago mugitzen, istorio berriak kontatzen eta formatu berriak probatzen. Sortzaile izan zaitezke baina sortzaileek ere pagatu behar dituzte fakturak hil amaieran. Erakundeen babesa ezinbestekoa da.

# BERBETANek aurkezpen jendetsua izan zuen

*Euskaltegi, ikastetxe, haurreskola, dendari, tabernari eta herritar ugari batu zituen ekitaldiak*

Aurkezpen-mahaian egon zen Ainara Argoitia, ...eta kitto! Euskara Elkarteko presidentek nabarmendu zuen moduan, "hamabost urteko ibilbidea du Berbetan programak. Hamabost urteko ibilbide horretan Berbetan garatuz eta zabalduz joan da, gure herriak dituen berezitasun soziolinguistiko eta sozioekonomikoak kontuan hartuta. Horrela, gaur egun euskara praktikatzeko aukera eskaintzen da, horretarako propio sortutako taldeetan (BERBETAN OROKORRA), guraso talde/lagunarteetan (GURASOAK BERBETAN) edota herriko denda eta tabernetan (DENDARIAK ETA OSTALARIAK BERBETAN)".

Patxi Lejardi Eibarko Udaleko Euskara eta Kultura zinegotziak gurea moduko herri batean era honetako ekimenen beharra nabarmendu zuen, non erabilera ez den oso altua. Lejardi bera ere Berbetan-eko taldeetan ibilitakoa da, eta aurtan berriz ere eman du izena.

Mikel Irizar Gipuzkoako Foru Aldundiko Hizkuntza Berdintasunerako Zuzendari Nagusiaren esanetan,



*"emozionatzekoa da Eibarren, talde hauetan, 100 pertsona dabiltzala jakitea". Jokin Azkue Eusko Jaurlaritzako Euskara Sustatzeko Zuzendariak adierazi zuenez, "era honetako programek euskararen erabilera handitzeko eta euskaldunen harreman-sarea zabaltzeko eragingarriak eta beharrezkoak dira".*

## Berbalagunen iritziak

Bideoan parte hartzeaz gain, Onintza Arrizabalaga, Davide Cerchi eta Juan Antonio Formosok ere hitz egin zuten ekitaldian, euren esperientziak kontatzeko. Onintza Arrizabalagak Berbetanen parte-hartzea erreza eta atsegina dela adierazi zuen. Bere esanetan, "ahalegin txikia eskatzen du, batez ere norbere betiko lagunekin egiten denean".

Davide Cerchiren iritziz, "programa oso baliagarria da". Ama lekeitiarra duen italiar honi, Italian urteak eman ondoren, ahaztutako euskararekin berriz ere elkartzeko lagundu dio. Juan Antonio Formosok euskara erabiltzen hasteko talde baten bila eman zuela izena azaldu zuen. "Baina hori baino askoz gehiago jaso dut: lagun berriak egin ditut eta euskaraz berba egiteko lotsa kendu dut".







Asteazkeneko ekitaldian “BERBETAN. Eibarren euskera praktikatzeko taldeak” bideoa aurkeztu zen. Ikusi nahi baduzue: [www.etakitto.eus](http://www.etakitto.eus)

## GURASOAK BERBETAN ETA OROKORRA



100 lagun inguru daude Gurasoak Berbetan eta Berbetan Orokorrean izena emanda eta kopuru hori handitzea izango da ikasturte honetako erronka nagusia.

Antolatzaileek adierazi dutenez, “*astean ordubete ateratzea zaila zela ikusten genuen eta ezezagunekin elkartzea, hasiera batean behintzat, oztopo txiki bat izan zitekeela antzeman genuen. Horri buelta eman nahi diogu eta tabernari eta dendariekin erabiltzen dugun metodologia bera aplikatuko dugu, baina kasu honetan kuadrilla edo talde naturaletara aplikatuta. Parkean umeei merienda emateko elkartzen den guraso taldea, edota ostiraletan poteatzera irteten den lagunartea...*”  
Betiko jendea, betikoa egiten, hau da, euren eguneroko ohiturak aldatu gabe euskarari tartea egitea: “*konpromiso txiki batzuk hartuta, adibidez umeei bokadilloa jaten*

*duten bitartean behintzat geu euskaraz, edota ostiraletan lehen potea behintzat euskaraz...*”

### EUSLEAREN FIGURA AURTENGO BESTE BERRITASUN BAT

Talde naturalen kasuan, sarritan, gaitasun gabezi bat baino gehiagorekin, ohitura faltarekin egingo dugu topo. EUSLEA taldeak aukeratutako pertsona bat izango da. EUSLEAK denbora tarte jakin batean (astebete, hilabete...) euskarari eutsiko dio, nahiz eta besteek gazteleraz egin.

### EKINTZA OSAGARRI MORDOA

Izen-ematearekin batera ikasturte osorako eskaintza zein den jakinarazi dugu aurten: irteerak, hitzaldiak, ikuskizunak, lehiaketak... etabarrez josita dator aurtengo egitaraua!



Dendetako eta tabernetako giroak nortasuna eta bizitasuna ematen diote herriari eta gure herriaren irudia ere osatzen dute.

Berbetan egitasmoak euskararen erabilera bultzatzea du helburu eta horretarako dendarien eta tabernarien parte-hartzea ezinbestekoa da. Naturaltasun osoz taberna edo denda bertan euskara erabiltzeko aukera izatea nahi dugu.

### “Euskaraz Primeran!” kanpaina

Euskara maila ez da berdina tabernari edo dendari guztien artean, baina hori ez da oztopo, hasierako hitza behintzat euskaraz izateko. Gero bakoitzaren gaitasunaren arabera modu batera edo bestera moldatzen dira. Apurka-apurka gero eta euskara gehiago erabiltzea lortuko dugu.



Dendari eta ostalarientzat ere ekintza osagarri ugari aurreikusten ditugu, beti ere euskararen erabilera bultzateko: koktel-ikastaroa, opariak biltzeko modu originalak, erosketak euskaraz egiteko lelo-lehiaketa, gilda-lehiaketa... eta abar.

## BERBETAN-EN IZENA EMATEKO EDOTA INFORMAZIOA JASOTZEKO:

943 20 09 18

### BIDEOA IKUSTEKO:

[www.etakitto.eus](http://www.etakitto.eus)

Gaur (ostirala), BERBETAN jaialdia ospatuko dugu Untzaga Plazan: puzgarriak, eskulan-tailerrak, globo-banaketa, Irrien lagunekin “Kanta eta Dantza” ikuskizuna...  
**17:30etik 20:00etara,** etorri ondo pasatzera!!!



...eta kitto! 15/IX/25 • 943 zkia.

## Energia Berriztagarrien Ingeniaritzako lehen promozioa graduatu da

Joan den asteko eguenean Industria Ingeniaritza Teknikoko Unibertsitate Eskolako Graduazio Ekitaldia hartu zuen Hezkuntza Esparruko areto nagusiak eta ekitaldi horretan Energia Berriztagarrien Ingeniaritzan graduatu diren lehen promozioiko ikasleei diplomak banatu zizkieten. Euren batera, Ingeniaritza Mekanikoko Graduan eta Industria Elektronikaren eta Automatikaren Ingeniaritzako Graduan titulu

latu berri direnek ere diplomak jaso zituzten. Unibertsitate Eskolako arduradunek Energia Berriztagarrien Ingeniaritzako Graduaren lehen promozioa graduatu dela azpimarratu dute: "Es-



*Estatu mailan Eibarko Hezkuntza Esparruan bakarrik eskaintzen den titulazioa da Energia Berriztagarrien Ingeniaritzakoa.*

tatu mailan bakarrik hemen irakasten den titulazioa da eta ikasleen aldetik eskaera handia duen ikasketa da".

Diplomak banatzeko ekitaldian Iñaki Goirizelaia EHU-ko errektoreak, Cristina Uriarte Eusko Jaur-

laritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuak, Miguel de los Toyos alkateak, Jose Ignacio San Martin Eibarko Ingeniaritza Eskolako zuzendariak eta Santiago Berasain Gipuzkoako Peritu eta Ingeniari Tekniko Industrialen Elkargoko Dekanoak hartu zuten parte.

## Gaztelekuen II. Topaketa, urrian Arraten

Arrateko aterpetxeak Gaztelekuen II. Topaketa hartuko du urriko lehen asteburuan (urria-

ren 3an eta 4an), Indianokua gaztelekuak antolatuta. Deba, Elgoibar, Soraluze eta Eibar-

ko nerabeentzat prestatu dute jardunaldia eta, antolatzaileen berbetan, "neska-mutilak elkar ezagutzeko eta primeran pasatzeko asteburua antolatu dugu". Irteeraren prezioa 18 eurokoa da eta joan nahi duenak aurretik izena eman beharko du, horretarako Indianokua gaztelekura ohiko ordutegian joanda (gaur da azken eguna, plazak mugatuak dira). Antolatzaileek diotenez, "Arrateko aterpetxean gau bat pasatu eta asteburu biribila igaro nahi baduzu, jende berria ezagu-

tuz, animatu eta topaketan parte hartzeko izena eman".

Aurtengo apirilean Deban lehenengoz antolatu zuten gaztelekuen arteko topaketak oso harrera ona izan zuen eta topaketaren harira Deba eta Eibarko neska-mutil talde polita batzea lortu zuten. Elkarrekin eguna ederto eman zutela ikusita eta gazteek bigarren topaketa bat antolatzeko eskatzen zietela ikusita, lehen jardunaldiak izandako arrakasta errepikatzeko asmoarekin animatu dira Arrateko antolatzera.



*Iaz Deban egindako I. Topaketan eskualdeko gazteek ondo gozatu zuten.*

**GURASO TALDEAK**



**PSIKOTERAPIA ZENTROA**

- Amatasuna eta aitasuna: Batera hazten (0 eta 7 urte bitarteko seme-alabekin).
- Nerabezaroa eta garapen osasungarritasuna. Nerabe gurasoentzat.
- Haziera kontzientea: Amentzako talde terapeutikoak.

**943 20 22 66**  
[www.arratepsicoterapia.com](http://www.arratepsicoterapia.com)

**Isasi, 31** Egunero 06.00-22.00

**943 207 737**

*Etorri! Zure etxian egongo zara!!*

**KAFETEGIA OKINDEGIA**

SUTINDO

Astelehenetik ostegunera  
**PINTXO-POTEA!**



*Kalamua Judo Klubekoak ez dira geldirik egoten diren horietakoak eta, "non sartzen ginen ondo jakin bari", Espainiako I. Jiu-Jitsu Kopa Eibarrera ekartzea pentsatu eta antolatu dute. Bihar Ipuru kiroldegian jokatuko den txapelketa horretan 115 kirolarik eman dute izena, "60 borroka modalitatean eta beste 55 ne-wazan, azken horretan estatuko txapeldun guztiakin". Antolaketa lanetan geratu barik diharduten Kalamuako **Manu Agirre eta Hegoi Estebanekin** izan gara (argazkian Felipe Zamakola Kirol Patronatoko zuzendariarekin ekitaldiaren aurkezpenean). "Biharkoa pasatu arte" ezin direla lasaitu diote, baina pozik dira orain arte jaso duten erantzunarekin: "Bai partehartzaileei dagokienez eta baita herrian hainbat tokitatik jaso dugun babesagatik".*

## Kalamuakoak Espainiako I. Jiu-Jitsu Kopa antolatzeko erronka berriaren aurrean

**- Nondik etorri zitzaizuen horrelako jardunaldi bat antolatzeko ideia?**

Azken Espainiako txapelketan klubeko bost ordezkari izan ziren Euskadiko selekzioarekin eta eurenak izan ziren lortutako bost dominak. Horrek animatu gintuen, batez ere, torneoa gurera ekartzera. Kalamuako 11 ordezkari izango dira lehian eta Espainiakoan lortutakoa berresteko asmoa dugu. Baina desorekak agintzen duen kirol honetan inoiz ezin dira emaitzak ziurtatu.

**- Nondik nora joko du egitarauak? Zenbat modalitatean lehiatuko dute kirolariek?**

Gaur arratsaldean pisaketa izango dugu Hezkuntza Esparruan eta bihar lehiaketa eguna izango da, goizez borroka modalitatean eta arratsaldean ne-wazan. **Goizeko saioa 10.00etan hasiko da eta arratsaldekoa 16.00etan.**

Guztira 29 maila izango dira, 25 urratsetan banatuta. Partehartzaileen arloan, gurekin izango dira Javier Garcia lau alditan munduko txapelduna, kata modalitateko munduko azken txapelketan laugarrenak izan diren Zaragozako ordezkariak... Kalamuatik azaroan Munduko Txapelketan lehiatuko duen Nekane Muguruza izango dugu: Espainiako sei ti-

tulu ditu dagoeneko eta uste dugu podiumean izango dela. Iker Martinezengan ere itxaropen handia dugu jarrita maila estreinatuko duen honetan.

**- Zein ezaugarri ditu jiu-jitsu modalitateak?**

Japoniako feudalismo sasoiatik datorren kirol mota da, batez ere soinez soineko borrokan oinarritutakoa, eta beti ere arau batzuen barruan. Ez da disziplina olinpikoa, baina gero eta erabiliagoa da defentsa pertsonalaren esparruan. Karatea eta judoa nahasten ditu hiru arlotan banatuta: zutik eta lurrean egiten diren proiektzioak eta karate kolpeak. Ne-waza modalitatea, aldiz, lurreko judo moduan bataiatu dezakegu.

**- Kirol horretan ezjakina den batak zer aurkitu dezake biharko jardunaldian?**



**Kalamuak 11 ordezkari aurkeztuko ditu asteburuko txapelketan.**

Jiu-jitsua ezagutzen ez duen bati erakargarriagoak egingo zaizkio lehenengo kanporaketak finalak baino. Aurreneko borroketan, kirolarien artean alde nabarmenagoa dagoenez, gehiago gozatuiko du, gauza gehiago ikusiko ditu. Finaletan, ostera, zailagoa izango da horrelako alderik ikustea. Ne-waza, lurrean egiten denez, ez da hain ikusgarria: sei minutuko lehiak dira eta hor nagusien aukera gehiago dute, teknika fisikoari nagusitzen zaiolako askotan.

**- Zuen klubean, Kalamuan, zentratuz: zenbat kirolari dituzue orain hasi berri den ikasturtean?**

80ren bueltan ibiliko gara, 3tik 35 urtera arteko tarte horretan. Neska gutxi ditugu, gure lokalaren gaineko dantza klaseetan mutil gutxi duten moduan. Judoa ki-

rol aproposa da pertsona baten heziketarako eta, horrela, ikusi dezakegu Japonian derrigorrezko asignaturatzat dutela.

**- Epe motzerako, zelako itxaropenak dituzue? Zeintzuk dira zuen hurrengo erronkak?**

Azken denboraldian egindakoarekin konformatuko ginatke: judoan Euskadiko eta Gipuzkoako txapelak lortu ditugu eta gure lau ordezkari Espainiako finaletan izan dira; jiu-jitsun bost domina eskuratu ditugu estatu mailan... Eta izan garen tomoetatik dominenez beterik etorri izan gara; esaterako, Eibarko Nazioartekoan 15 domina lortu genituen.

**- Jiu-jitsu tomoa honetako lehen edizioa izango da biharkoa. Badi-rudi jarraitzeko asmoa duzuela...**

Eutsi egingo diogu... 4. edizioa arte behintzat. Ez dugu diru-laguntza askorik jasotzen, baina oraingoan Udalak dena eman digu eta ere hor izan dira Avia, El Corte Ingles, Eroski, Laborala... Arrateko aterpetxea hartu dugu bi egunerako, 30 ohe Unibertsitatean eta Hotel Unzagan libre zeuden logelak. Otorduak, bestalde, sagardotegian eta bi soziedatetan egingo ditugu. Horrez gain, aukera aprobetxatuko dugu euskal talde guztiak elkarrekin entrenatzeko, baita wu-shukoak ere.

# GREMIOEN GIDA

## ANTENAK

**BALATZ** c.b.  
Instalakuntzak eta konponketak  
antenak - telebista  
Bidebarrieta, 37 Tfnua. 943 20 05 08  
balatz@euskalnet.net Faxa. 943 20 04 94

Ego Gain, 2 - Bac  
Tfnua. 943 12 73 50  
www.trinmer.com  
**trinmer**  
TELEKOMUNIKAZIOAN  
PROFESIONALAK

## AROTZAK

**ateak**  
**EDEK**  
aroztegia  
ATEAK, HORMA-ARMAIRUAK, TARIMAK...  
BURDINDEGIKO ARTIKULUAK SALGAI - GILTZEN KOPIAK  
EBANISTERIA - ERAKUSKETA iraner  
Bizkaia etorbidea, 10 (ERMUA)  
943-174925 iranercb@gmail.com 666918745

**SUP** SUKALDE ALTZARIAK  
\*  
AROTZEGIA  
Iparragirre Anaiaik  
F. Calbetón, 4 behea Tel. 943 20 29 27  
Tailerra: Apalategi auzoa Tel. 943 12 01 92  
Mobila: 657 79 56 78

**ulmar**  
S.L.  
metalezko eraikuntzak  
aluminiozko eta PVC-ko aroztegia  
baita toldoak, gortinak, estoreak etabar  
Txonta, 30 - 1. eta behea  
Tfnoak: 943 12 13 67 Faxa: 943 12 01 50  
ERAKUSKETA  
EIBARREN, Urkizu 26an (Tel. 943 12 74 01)

## ELEKTRIZITATEA

943 530 356  
688 674 242  
669 934 964  
**electricidad**  
**iparelek** s.l.  
INSTALAZIOAK ETA  
MANTENIMENDUA  
iparelek@gmail.com iparelek@iparelek.com

**THELECER**  
TELEKOMUNIKAZIOAK  
ELEKTRIZITATEA  
ENERGIA BERRIZTAGARRIAK  
24 orduko  
urgentziak  
610 532 922

## ERAIKINEN MANTENUA

**I.T.E.** INSPECCION  
TECNICA DE  
EDIFICIOS  
**E.I.T.**  
ERAIKINEN  
IKUSKAPEN  
TEKNIKOA  
info@ajtoficina.com tlf. 945 20 12 50  
**AJT** zihurtasuna s.l.p.  
Barrena, 6 - behea ezk.

**HEMEN ZURE TOKIA izan nahi baduzu...**

# Informazio gehiagorako



943 20 67 76



## ERREFORMAK

**ESTUDIOS ARRILLAGA**  
PROIEKTUAK-ERREFORMAK-BERRIKUNTZAK  
ARRAGUETA 12 -Eibar- Tel. 943 20 06 98  
ROSARIO 15 -Elgoibar- Tel. 943 74 40 19

## GARBIKETAK

**Limpieza Multiservicio Eibar**  
Superficie mota guztietako garbiketa eta mantenimendu zerbitzua  
Tfnoa. 943 031 082  
Mobila 688 609 171  
www.multiservicioeibar.com Barrena, 21 - 1. F

**TREJO GARBIKETAK S.L.**  
Tel: 943-752557  
Faxa: 943-752556  
16 Postakutzatila - Sorraluze  
Garbiketa eta mantenimendua

## IGELTSEROAK

**irazabal**  
Jose Maria Irazabal, S.L.  
Eraikuntza Erreformak Igeltseritza  
Zure etxea, bulegoa, tailerra... aldatzen laguntzen dizugu etorkizun hobeaz goza dezazun  
Azitain Industrialdea, 3 H Pabilioia  
Tfnoa. 943-120108  
www.irazabal.net

## ITURGINTZA

**MUGICA**  
ITURGINTZA  
K21  
AIRE EGOKITUA, ITURGINTZA, GAS INSTALAZIOA, KALEFAKZIOA, PETROLIO-PRODUKTUAK, BAINUEN ERREFORMAK ETA ABAR...  
HANS GROHE KANILEN BANATZAILEA  
ZORU ERRADIATZAILEA  
EGUZKI-ENERGIA  
Egiguntarren, 18  
Tel. 943 20 10 30 - Faxa. 943 20 72 24

## KRISTALAK

**ACHA Kristaldegia**  
TAILERRA: ERREKATXU, 3an  
KRISTAL ARLOKO SOLUZIOAK  
info@cristaleriaacha.com ERAKUSKETA  
eta faxa: 943 203 903 Arikitzaneko Zubian

## PINTURAK

**AIXA**  
DECORACIONES  
José Luis Iriondo  
Tfnoa. eta Faxa. 943 20 05 94  
T. Etxebarria, 8 - behea  
Pintura orokorra  
Margotutako paperak  
Zoruen kolokazioa  
PVC zoruak  
Maketak  
Alfonbrak  
Kortinak  
Etxerakoak  
Osagarriak

**baglietto**  
PINTOREAK  
Zoru mota guztiak  
Pinturak  
Dekorazioa  
Errebal, 21  
Tel/Fax: 943 201 922 bagliettoeibar@kaixo.com

**MALVAR**  
PINTURAS  
Sostoa, 16 ac behea  
Tfnoa. eta Faxa. 943 700 900  
Mobila. 656 784 396

**VICTOR GONZALEZ FRAIZ**  
PINTURA OROKORREAN  
BARNE eta KANPOKO dekorazioa eta pintura, FATXADAK, PINTURA BEREZIAK, ENPAPELATUAK, GOTELÉ...  
Bizkaia Etorbidea, 9 -ERMUA-  
696-565394 / 943-030540  
victor-fraiz@hotmail.com

...deitu 943-206776 telefono zenbakira

## Herriko triatletek hainbat txapel jantzi zituzten Mutrikun

Gipuzkoako Triatloi Sprint Txapelketa izan zen jokoan aurreko zapatuan kostaldeko herriko triatloiairen hirugarren edizioan. Euskal Herriko zirkuitorako 14. proba puntuagarrian, eibartarrak goi-goiko postuetan sailkatu ziren hainbat mailatan. Horrela, Pello Osoro nagusitu zen proban, Txomin bere anaia junior onena izan zen (17.a sailkapen orokorrean), Edu Oiarzun beterrano onena V2 mailan (31.a) eta Iñaki Konde lehen beterranoa V3 mailan. Emakumezkoetan, bestalde, Santanderreko Estefania Gomezek irabazitako lasterketan, Aitziber Urkiola eibartarra

hirugarrena izan zen (Gipuzkoako azpitxapelduna) eta Ane Ziaran bosgarrena.



*Txomin Osoro juniorra.*



*Urko 14 Alkideba Larragest Preferentia igo da aurten.*

## Urkiren faltarekin hasi da foballa maila erregionalean

Azken bi urteotan klub berri bi sortu badira gure herrian, oraingoan Erregional mailan zeuden lau taldeetatik bat galduko dugu, hainbeste urtetan jokatu izan duen Urkik, nahiz eta beste maila guztietako taldeekin jarraituko badu ere, aurten talde nagusia osatzeko arazoak izan dituzte eta ez kaleratzea erabaki baitute. Aurten, gainera, Urkomendi 14 taldeak (Urko 14 Alkideba Larragest izenarekin) Preferente mailan jokatu du azken denboraldian maila igo eta gero: Unben jokatuak lehen jardunaldian eibartarrak bana berdindu zuten Ohorezko mailatik jaitsitako Bergarekin, behereko zelaia zaletuz betetako jokatuak neurketan, eta hurrengo jardunaldian Legazpira joango dira llinxari aurre egitera. 1. maila Erregionalean arituko direnetaik, bakarrak - Armagiñak - hasi zuen denboraldia, ondo gainera, Bergaran Arizmendiren aurrean nagusituz (0-2). Eibartarrak taldeak, bestalde, atsedean hartu zuen denboraldi hasieran.

## Herriko sei txirrindularik jardun dute Debabarrenan

Aurreko domekan jokatu zen Zaldibian euskal egutegiko azken proba eta, Caja Ruraleko Lastrak irabazitako lasterketa horretan, Debabarrenako Victor Cordon ermutarra 14.a izan zen eta taldeka Klub Deportibokoak seigarrenak izan ziren. Aurten sei eibartar izan dira taldean, guztiak ere hasiberriak 23 urtetik beherako maila horretan: Jokin Bergara, Jokin Basurto, Iker Goikoetxea, Imanol Martinez eta Pablo Zabala. Juanjo Sebastian, Josu Iraeta eta Pedro Juan Egaña teknikariek hurrengo denboraldian lan horrekin jarraitzeko asmoa dute.

## Kirol Patronatoaren eskaintza nagusiek kirola egiteko



Nagusiendako ostiralak ekimena ipini du martxan Eibarko Kirol Patronatoak, euren aktibitatea osatzeko asmoarekin. Hor badmintona, ibilaldiak, dantzak, yota etabar sartzen dira. Gainera, aulkiko aktibitatea ere eskaini diete mugikortasun mugatua duten nagusiei eta hasi edo aktiboki jarraitu nahi dutenentzat. Horrez gain, 65 urtetik gorakoentzat 30 minutuko eurentzako moldatutako aerobiko-lana ere badago aukeratzea.

## Aldaketa mendi irteeran

Urriaren 3rako Klub Deportiboak antolatutako mendi irteeran aldaketa egin dute eta, aurreikusitako Orduñatik Delikaraino ibilbidea egin beharrean, alderantziz egingo dute, Delikatik Orduñara joanda eta Txarlazo gaina (933 metro) zapalduz. Bestalde, aurreko asteburuan Mendi batzordeko hainbat partaide Besaiden egon ziren hilda-ko mendizaleei urtero egiten dieten omenaldian.



Armagin 3 - behea

☎ eta faxa: 943 70 14 97

- Pin-ak  
- Metxeroak  
- Kamisetak  
- Boligrafoak...

PUBLIZITATE ARLOKO eta  
ENPRESETAKO OPARIAK

publi.resa@euskalnet.net



- tartak
- enkarguak
- etxera

Bidebarrieta, 28  
☎ 943 20 79 73

## Hierros Anetxek galtzen hasi du denboraldia

Eibarko errugbiko lehen taldeak 29-6 galdu zuen Burgosen bertako Aparejadores taldearen aurka jokaturako partiduan. Azken denboraldiko "errebelazioa" izandakoak fitxaketa berriak egin ditu liga honetarako eta nagusi izan zen partidu guztian (17-3 atsedendian). Bihar, 17.00etan

hasita, Hierros Anetxekoek Zarautz hartuko dute Unben denboraldiko etxeko lehen partiduan. Kostaldekoek irabazi egin zuten aurreko asteburuan eta aurkari zailak izango dira; hortik zaletuen laguntasunak izango duen garrantzia puntuak Eibarren geratzeko.



Bestalde, Eibar Rugby Taldeak apostu berria egin du denboraldi honetarako eta, gazteenetik hasita, aukera berriak zabaldu dizkie errugbian jardun nahi dutenei. Informazio gehiagorako, whatsapp bidali 627959658 zenbakira edo harremanetan jarri eibarrugby@outlook.es postarekin.



Maidar Castillo eibartarrak omenaldia jaso zuen atsedendian.

## Celta handia hartuko du Eibarrek bihar gauean

Beldur piska bat ere ematen du galiziarren bisitak ikusita eguaztenean jokaturako partiduan Bartzelona handiari arlo guztietan emandako lekzioa. 4-1ekoarekin lidergora egin dute jauzia Berizzoren mutilek, Villarreal eta Real Madrilekin berdinduta, eta Mendilibarren mutilek baino bost puntu gehiagorekin. Zaletuek, beraz, aukera polita izango dute foball joko polita ikusteko eta eibartarrek zelako armak erabiltzen dituzten horri aurre egiteko, ahaztu barik orain arte erakusten diharduten jendearen gustoko joko bizia. Bihar gauean 22.00etan hasita Ipuruan jokaturako den partidua TVE-1ek emango du zuzenean.

Bestalde, eguaztenean Valentzian Levanteren aurka jokaturako partiduan hainbat aldaketa egin zituen Mendilibarrekin, kasu batzuetan lesioek behartuta. Horrela, Pantic-ek eta Juncá-k Ramisen eta Lunaren tokia hartu zuten eta Inuik debutatu zuen, Borja Bastonek hasieratik jokatzeko aukera, baina bere bi golak ez ziren nahikoak izan irabazteko.

## II. Flysch Beltza bihar

Urbatek antolatzen duen zeharkaldi bikoitz horretako 2. edizioa jokaturako da bihar 16.30etan bi neurritan: Mutriku-Deba (3 kilometro) eta Saturraran-Deba (6.500 metro).



# KILOMETROAK USURBILEN

urriaren  
4an  
**g!UNK**  
KMK 2015 USURBIL

10 eurotan

T. Etxebarriatik  
**AUTOBUS**

Buelta:  
19.30etan



Irteera:  
09.30etan

**zerBITZUA**

J.A. MOGEL-EKO GURASOEN ELKARTEA

...ETA KITTO! EUSKARA ELKARTEA

nenoos  
promoting talent

Mind Body Emotion

ADIMENA ERA DIBERTICARRI ETA ERAGINKORREAN GARATZEKO NEZIKETA METODO INTEGRALA

EZAGUTU NENOOS METODOA GURE DOAKO TAILERRETAN

3tik 13 urtera

Irailak 18 eta 25 ostirala  
17-17:45 eta 18-18:45

Irailak 19 eta urriak 3 larunbata  
11-11:45 eta 12-12:45

Juan Guisasola 16, Eibar • eibar@nenoos.es  
Tel. 688 802 705 • www.nenoos.es



Gaur inauguratuko dute "Ignacio Zuloaga y Manuel de Falla: historia de una amistad" izenburuko erakusketa Madrilén, Cibeles zentruan. Lau hilebetean ikusgai egongo den erakusketa proiektu zabalago baten baitan kokatzen da eta, horren harira, Pedro Palacinek zuzentzen duen Andres Egiguren orkestrak kontzertu berezi bi emango ditu amaiera aldera.

**PEDRO PALACIN (orkestra zuzendaria):  
"Madrilgo kontzertuak oso bereziak izango dira"**

**- Nola suertatu zaizue Madrilén jotzeko aukera?**


Ignazio Zuloaga margolari eibartarra eta Manuel de Falla lagun handiak izan ziren eta, laguntasun hori gogoan, Maria Rosa Suarez artistaren ilobak horren inguruko erakusketa berezia antolatzea pentsatu zuen. Ideia horren hariari tiraka, hori antolatzeko beharrari ekin eta erakusketaren inguruko kontzertuak egiteko aukera sortu zitzaigun. Hasieran erakusketaren inauguraziorako izatea aurreikusita zegoen, baina asmoz aldatu eta, azkenean, kontzertuak atzeratu dituzte eta erakusketaren amaiera aldera emango ditugu. Erakusketa benetan berezia izango da eta hainbat museo eta partikularrek lagatako koadroak elkarrekin ikusteko aukera bikaina eskainiko du.

**- Kontzertuak ere bereziak izango dira...**

Bai. "El retablo de maese Pedro" Fallaren lan garrantzitsuenetakoa da eta guri opera hori antzetzeko eskatu digute. Entseguak aurrerago egingo ditugu, kontzertuak baino hamar edo hamabost egun lehenago hasiko gara orkestrarekin ensaiatzen. Hala ere, aurretik ere lan handia dago: musikarientzat partiturak lortu, agertu daitezkeen zalantzak argitu, artxiboetan begiratu, abeslariekin egon... Kontzertuak prestatzeko orduan, abeslariak aukeratzeak eman digu lan gehien: egokienak zeintzuk izango diren pentsatu, eurekin kontaktuan ipinita kontzertuak izango diren egunetan abesteko aukera izango duten ala ez lotu... baina azkenean lortu ditugu nazioarteko mailan gorenean dauden abeslariak eta horiek jardungo dute gurekin batera.

**- Bestela, ekitaldi berezi horietatik kanpora, nolako martxa dramazue Andres Egiguren orkestran?**

Ba aurtin hainbat asmo eta proiektu garrantzitsu erabili ditugu esku artean, baina arrazoiz ezberdinengatik gauzak atzeratzen joan dira eta, beraz, datorren urtean egin beharko ditugu. Une honetan 50 bat musikaririk osatzen dute orkestra eta, sorrerako asmoari jarraituta, kide guztiak gazteak dira. Nik argi ikusten dut musikari gazteen aldeko apustua egin beharra dagoela. Nire esperientzian oinarrituta, ideia eta proiektu ugari izaten dituzte eta benetan eskertzen dute eurengan sinistu eta gauzak egiteko aukera eskaintzea.



**Juan Ignacio Aizpuruaren argazkiak Deban**

Juan Ignacio Aizpurua, Klub Deportibo Argazki Taldeko kideak erakusketa zabalduko du gaur Deban, Agirre jauregian. "Natura-Bi ikuspegi" izenburukoan, eibartarraren lanekin batera Juan Ignacio Aizpuruaren ikusteko aukera egongo da. Erakusketa urriaren 4ra arte zabalduko dute, astegunetan eta zapatuetan 18.00etatik 20.00etara eta domeketan, berriz, 12.30etik 14.30era.



**Irigoienen lanak Crevillenteko argazki-jardunaldietan**

Jose Luis Irigoien argazkilaria lanak Crevillenteko XXVIII. Argazki Jardunaldien barruan, "Jose Candela Lledo" kultur etxean urriaren 30ean zabalduko duten erakusketan egongo dira ikusgai. Deporreko Argazkilaritza Taldeko kideak Indian hartutako hainbat irudi erakutsiko ditu zuri-beltzean.

**Bertsoak eta musika Txaltxa-Zelaiko auditorioan**

Hankamotzak bertso eskolakoek bertso saio musikatua antolatuko dute gaurko. Txaltxa Zelaiko auditorioan, 22.30etik aurrera, Beñat Gaztelumendi, Alaia Martin, Odei Barroso eta Uxue Alberdi bertsolariak jardungo dute eta, horiekin batera, Gari Otamendik (biolinarekin) eta Igor Arruabarrenak (gitararekin) musika eskaintzen ariko dira. Gai-jartzailea Iker Iriarte izango da.





## UEUren udazkeneko ikastaroak

Eguaztenez aurkeztu zituzten Udako Euskal Unibertsitateak udazkeneko prestatu dituen ikastaroak. Urritik abendura bitartean 18 ikastaro eskainiko dituzte Eibarren, Gasteizen, Iruñean eta internet bidez edo on line. Mari Karmen Menika UEUko Ikastetxe Nagusiko arduradunak aurkezpenean azaldukoari jarraituta, "ikastaroek azken bi ikasturteetan inoizko partaidetza handiena lortu dute. Euskarazko erreferentzia akademikoa izan nahi du UEUk. Horretarako, aurten Gasteizen ere eskainiko ditugu ikastaroak, Oihaneder Euskararen Etxearekin elkarlanean". Bestalde, on line ikastaroak izandako emaitza onak ikusita, 2015-2016 ikasturtean lerro horretan saktontzea erabaki du UEUk eta udazkeneko eskaintzan hori islatzen da. Izena emateko epea zabalik dago eta ikastaro bakoitzari buruzko informazio zehatza [www.ueu.eus](http://www.ueu.eus) helbidean kontsultatu daiteke. Gogoan izan udalak matrikularen erdia ordaintzeko diru-laguntzak ematen dituela Markeskuako ikastaroetan parte hartzen duten eibartarrentzat.



Mari Karmen Menika UEUko Ikastetxe Nagusiko arduraduna ikastaroak aurkezten.



## Umeendako irakurketa klubetarako izen-ematea

Juan San Martin liburutegiak umeengan irakurzaletasuna sustertzeko jarduerak abiarazi ditu: "Azalerako ipuinak" eta "Liburuen poltsa". Lehen urtebeteko eta HH-ko 2 eta 3 urteko geletako umeentzat, amak edo aitak lagunduta parte hartzeko pentsatuta dago eta umeen liburutegian egingo da (urriak 5, azaroak 9, urtarrilak 18, otsailak 22, martxoak 14, apirilak 18 eta maiatzak 16, 17.00etatik 17.45etara), euskeraz, Saroa Bikandik gidatuta. Eta "Liburuen poltsa" HH-ko 4 eta 5 urteko geletako eta LH-ko 1. mailako umeentzat, amak edo aitak lagunduta, eskainiko dute, "Azalerako ipuinak" egingo den egun beretan, baina 18.15etik 19.15era. Saio hauek ere Saroa Bikandik dinamizatuko ditu, euskeraz. Batean zein bestean izena emateko epea urriaren 1ean itxiko dute eta interesa duenak Juan San Martin liburutegira jo dezake.

## Ertibil Bizkaia 2015 Portalean

Bizkaiko Foru Aldundiaren Kultura Sailak Bizkaiko hainbat udalarekin lankidetzan antolatutako "Ertibil Bizkaia 2015" ikus-artearen erakusketa ibiltaria lehenengoz ailegatuko da Gipuzkoara, datorren asteko martitzenean Portalean inauguratuko duten erakusketarekin. Betiko bideari jarraituz, erakusketan artista gazte bizkaitarren lanak egongo dira ikusgai. Andere Etxegarai, Cristian Villavicencio eta Amaia Molinet sarituekin batera, Ana Aldama, Maria Andres, Julen Araluze, Raquel Asens, Xabier Barrios, Pedro Carnicer, Marta Faus, Maria de Viana, Ivan Gomez, Amaia Gracia, Maite Leyun, Edurne Martinez, Damaris Pan, Ruben Pino, Ana Riaño, Sebas Velasco eta Diego Vivanco aukeratu dituzte euren lanekin parte hartzeko. Portaleko erakusketa aretoa martitzenetik barixakura bitartean egongo da zabalik, 18.30etatik 20.30etara.



## Markos Untzeta & Bidelagunak zuzenean

Datorren domekan, 19.00etatik aurrera Markos Untzeta eibartarrak, Bidelagunak taldekoek lagunduta, kontzertua emango du Soraluzeako Gaztelupe tabernan. Iaz "Seinaleak" (Gaztelupeko Hotsak) izenburuko laugarren diskoa kaleratu zuen musikaria Londresen igo zen lehenengoz taula gainera, blues generoko klasikoaren bertsoak egiteko

eta berak idatzitako kantuak eskaintzeko, baina Euskal Herrira bueltan euskeraz abesteari ekin zion eibartarrak. Domekako emanaldian, Untzetaren ahots eta gitarrarekin batera, Angel "Alligator" Ituarteren bajua, Iñaki "Tahur" Belaustegiren bateria eta Giovanni "Falcone" Zanon-en gitarra elektrikoa entzuteko aukera egongo da.

# laztanak emoten...

Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.



Zorionak, MIREN, astelehenian hiru urte egingo dozuz-eta. Muxu haundi bat aitta, ama eta famelixa guztiaren partez.



Zorionak, ARRATE, etxeko printzesa politta, atzo bost urte bete zenduaz-eta. Patxo haundi bat famelixaren partez.



Zorionak, JUNE, hillaren 19xan zortzi urte bete zenduaz-eta. Muxu haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, MIKEL, martitzenian lau urte beteko dozuz-eta. Muxu bat etxekuen eta, batez be, aita eta amatxoren partez.



Zorionak, MIREN!, lau urteko printzesa maitagarria eginda zagoz-eta! Muxu erraldoia etxeko danon partez.



Zorionak, NOA Lopez Amas, bixar bi urtetxo beteko dozuzelako. Famelixa guztiaren eta, batez be, Danel eta Anerren partez.



Zorionak, ANER, irailleko lore eder. 9 urte alkar maitatzen. June, ama eta aittaren partez.



Zorionak, LAIA, atzo zortzi urte bete zenduaz-eta. Patxua etxekuen eta, batez be, Izarren partez.



Zorionak, MARTXEL!, domekan zortzi urte egin zenduaz-eta. Patxo pillua famelixako guztien partez.



Zorionak, AINHOA!, martitzenian urtiak egin zenduaz-eta. Zure famelixa eta mutiltxuen partez. Muxu haundi bat, oso ondo ospatu genduan-eta.

Zorionak, DANEL, domekan sei urte egin zenduaz-eta. Patxo haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, KOIKILLI (hillaren 29xan 2 urte) eta PELLO (hillaren 30ian urtetxua), beteko dozuz-eta. Muxu haundixa Ekhi, Eñaut, Enara eta famelixa guztiaren partez.



Zorionak, IRATI (abuztuan 10 urte bete zenduaz-eta) eta EKHI (etzi zazpi egingo dozuz). Segi beti bezain alaitu, bikote! Milla patxo etxekuen partez.



Zorionak, MIREIA eta IRATI Conde Roige, hillaren 22xan 10 urte egin zenduaz-eta. Gure printzesentzat, famelixakuen partez.



Zorionak, JULE (atzo urtetxua egin zenduan) eta amama MARIBEL (domekan zure eguna izango da). Muxu haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, MADDI eta PAULE!! Uztailian eta irailian urtiak bete dozuzelako. Patxo mordua!!! Batez be, Xabierren partez.



Zorionak, ALEX, astelehenian hiru urte beteko dozuz-eta. Zure kuadrillago laguntxuen partez.



Zorionak, JULEN eta PATXI, zuen 10. urtebetetzian.



Zorionak, UNAX, hillaren 19xan zortzi urte bete zenduaz-eta. Muxu asko famelixaren partez.

## hildakoak

- Juan Cruz Uriguen Mantecon. 58 urte. 2015-VIII-17.
- Javier Zuazo Alberdi. 85 urte. 2015-IX-20.
- Antonio Gonzalez Guerrero. 80 urte. 2015-IX-20.
- Jose Laskurain Larrañaga. 81 urte. 2015-IX-22.
- Angel Aldalur Larringan. 68 urte. 2015-IX-22.
- Patxi Lazkano Aizpurua. 85 urte. 2015-IX-23.
- Feli Galarza Legorburu. 93 urte. 2015-IX-23.

## jaiotakoak

- Laia Martin Martin de Almagro. 2015-IX-9.
- Martin Muniategi Pastor. 2015-IX-12.
- Miren Gonzalez Argintxona. 2015-IX-14.
- Ane Astigarraga Gomez. 2015-IX-18.
- Malen De Andres Errasti. 2015-IX-20.

## BARIXAKUA 25

### ATE IREKIAK

**17.00 eta 18.00.** Nenoos metodoa ezagutzeko umeendako (3/13 urte) doako tailerra. Nenoos-en (Juan Gisasola, 16an).

### BERBETAN JAIALDIA

**17.30.** Umeendako tailerrak, puzgarriak eta globo banaketa.

**19.00.** Irrien Lagunen kanta eta dantza ikuskizuna. Untzagan.

### INAUGURAZIOA

**19.00.** "Pedalei eraginez etorkizunerantz" erakusketa. Museoa.

### KONTZERTUA

**20.30.** Toby Connor. Beleko tabernan.

### ANTZERKIA

**20.30.** "De cuerpo presente" antzezlan, Glu Glu taldearen eskutik. 10 euro. Coliseoan.

### BERTSO MUSIKATUAK

**22.30.** Hankamotxak bertso eskolaren eskutik. Bertsolariak: Alaia Martin, Beñat Gaztelumendi, Uxue Alberdi eta Odei Barroso. Musikariak: Gari Otamendi eta Igor Arruabarrena. Gai-jartzaila: Iker Iriarte. Txaltxa-Zelaiko auditorioan.

## ZAPATUA 26

### UMEENDAKO JARDUERAK

**12.00.** "Storytime: cowboys&indians", ingelesez, Kids&Us-en eskutik. El Corte Ingles-eko terrazan (euria egiten badu, ekitaldi aretoan).

**18.00.** "Home. Hogar dulce hogar" filmaren emanaldia. El Corte Inglesean (ekitaldi aretoan).

### BIEN APARECIDA JAIK

**12.00.** Igel-toka eta "aizto-jokoa". Ipuruako bolatokian.

### GAZTELEKUA

**17.00.** Paintball-a. Itzioko parkean.

### JAIK

**23.00.** Txurrut-Ametsa tabernen agur jaiak.

## DOMEKA 27

### KONTZERTUA

**19.00.** Markos Untzeta & Bidelagunak. Gaztelupen (Soraluzen).

## ASTELEHENA 28

### AGINAGAKO JAIK

**18.00.** San Miguel bezpera dela eta, kanpai errepika. Aginagan.

## MARTITZENA 29

### AGINAGAKO JAIK

**11.00.** Meza nagusia.

**12.00.** Luntxa eta umeendako jolasak.

**14.00.** Herri-bazkaria, Usartza txistulari bandarekin. Aginagan.

### OMENALDIA

**19.00.** Asier Cuevas omentzeko plaka ipintzea. Unbeko Kirolgunean (atletismo pistan).

## EGUAZTENA 30

### SAGARDO DASTAKETA

**19.00.** ...eta kitto!-k antolatuta, Egoitz Zapiainen eskutik. Ipur sagardotegian.

### EIBARKO KANTUZALEAK

**19.00.** Abesbatzaren entsegu. San Andres elizako lokaletan.

## EGUENA 1

### ELKARRETARATZEA

**19.00.** Jubilatu-pentsio duinen aldeko elkarratzea. Untzagako jubilatu etxearen aldamenean.

### KALEETAN KANTUZ

**19.00.** Abesbatzaren entsegu. San Andres elizako lokaletan.

## erakusketak

### ✓ Irailaren 30era arte

**FOTOSPAI** (Bartzelona) elkartearen "Dialogo entre luz y cuerpo" argazki erakusketa. *El Ambigu tabernan.*

**PEDRO ARRIOLAREN** "Jordania" argazki erakusketa. *Portalea tabernan.*

**EXTREMADURAKO ARGAZKILARITZA ELKARTEKOEN** erakusketa. *Klub Deportiboan.*

**IÑAKI CAMPOSEN** argazki erakusketa. *Ez Dok tabernan.*

### ✓ Urriaren 4ra arte

**"PEDALEI ERAGINEZ ETORKIZUNERANTZ"**. *Armagintzaren Museoa.*



### ✓ Urriaren 18ra arte

**"ERTIBIL BIZKAIA 2015"** erakusketa ibiltaria. *Portalean.*

## zineaColiseoan

### (1 ARETOAN)

**26an: 17.00, 19.45, 22.30**  
**27an: 17.00, 20.00**  
**28an: 20.30**

### "El corredor del laberinto"

Zuzendaria: Wes Ball



### (2 ARETOAN)

**26an: 17.00, 19.45, 22.30**  
**27an: 17.00, 20.00**  
**28an: 20.30**

### "El desconocido"

Zuzendaria: Wes Ball



### (ANTZOKIAN)

**26an: 19.45, 22.30**  
**27an: 20.00**  
**28an: 20.30**

### "Irrational man"

Zuzendaria: Woody Allen



### (ANTZOKIAN)

**26an: 17.00**  
**27an: 17.00**

### "4 Fantásticos"

Zuzendaria: Josh Trenk



## Lehiaketak

- ✓ **16. "Asier Errasti" Film Laburren Jaialdia**  
Informazioa eta lanak aurkeztea: **Urriaren 2ra arte**, [www.planocorto.es](http://www.planocorto.es) eta [www.eibar.eus](http://www.eibar.eus) webguneetan.
- ✓ **I. Ojanguren XXVIII. Argazki Lehiaketa**  
Informazioa eta lanak aurkeztea: **Urriaren 7ra arte**, Portalean.
- ✓ **"Sanandresak Eibarren" kartel lehiaketa**  
Informazioa eta lanak aurkeztea: **Urriaren 13ra arte** (19.00ak arte), Pegoran.

## Ikastaroak


- ✓ **"Argazkigintza digitala. Lehen urratsak"**  
**Noiz eta non:** Urriaren 19tik azaroaren 25era arte (astelehen eta eguaztenetan (19.00-21.30), Portalean. **Izen-ematea:** Irailaren 21etik urriaren 2ra (biak barne). Eibarren errolatutakoak 47 € (besteak 79 €). Pegoran.
- ✓ **Jabetze Eskolako ikastaroak**  
**Noiz eta non:** Iraila eta abendua bitartean, Andretxean edota Portalean.  
**Eskaintza:** "Maitasuna ez da kristorena!" (gaztelerez, 22 ordu, izen-ematea urriaren 9ra arte); "Nire burua zaindu, zu zaindu" (gaztelerez, 16 ordu, izen-ematea urriaren 19ra arte); eta "Transfeminismoa" (gaztelerez, 8 ordu, azaroaren 6ra arte).

## telefono jakingarriak

SOS deiak.....	112
Pegora.....	010
Udaletxea.....	943 70 84 00
Portalea.....	943 70 84 39
Udaltzaingoa.....	943 20 15 25
Mankomunitatea.....	943 70 07 99
Debegesa.....	943 82 01 10
KIUB.....	943 20 38 43
Epaitegia.....	943 03 34 00
Iberdrola.....	901 20 20 20
Naturgas.....	902 12 34 56
DYA Larrialdiak.....	943 46 46 22
Gurutze Gorria.....	943 22 22 22
Mendaro osp.....	943 03 28 00
Anbulatorioa.....	943 03 25 00
Torrekua.....	943 03 26 50
Errepideak.....	902 11 20 88
Ertzaintza.....	943 53 17 00
Eusko Tren.....	902 54 32 10
Lurraldebus.....	943 00 01 17
Pesa.....	900 10 14 00
Taxiak.....	943 20 30 71
.....	943 20 13 25
Alkohol.Anon.....	629 14 18 74
Al-Anon/Alateen.....	650 26 59 63

## diru-laguntzak / bekak

- ✓ **XII. Juan San Martin beka.** Eskakerak: Urriaren 9ra arte, Pegoran.
- ✓ **Umeak Eskolara.** Eskakerak: Urriaren 30era arte, Eibar Merkataritza Gune Irekian.
- ✓ **Ikasleentzat.** Eskakerak: Urriaren 30era arte, Eibar Merkataritza Gune Irekian.
- ✓ **UEUkoentzat.** Eskakerak: Irailaren 30era arte, Pegoran.
- ✓ **Enpresen azterlanetarako.** Eskakerak: Irailaren 30era arte, Pegoran.
- ✓ **Langileak kontratatzeko.** Eskakerak: Urriaren 30era arte, Pegoran.



## S U D O K U A

3				1			
5			9	3	8		
2				5		3	1
		2	5				
	3	7			4	5	
				7	3		
8	1		3				7
		6	2	4			3
			8				6

4	9	7	2	3	8	5	1	6
6	5	2	4	1	7	9	3	8
3	1	8	9	5	6	4	2	7
2	6	1	3	4	5	8	7	9
9	4	5	8	7	1	2	6	3
8	7	3	6	9	2	1	4	5
1	8	4	7	6	9	3	5	2
7	3	9	5	2	4	6	8	1
5	2	6	1	8	3	7	9	4

AURREKOEN EMATZA

## farmaziak

- ✓ **barixakua 25**  
EGUNEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)
- ✓ **zapatea 26**  
EGUNEZ **Larramendi** (Calbeton, 19)
- ✓ **domeka 27**  
EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
- ✓ **astelehena 28**  
EGUNEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)
- ✓ **martitzena 29**  
EGUNEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)
- ✓ **eguaztena 30**  
EGUNEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)
- ✓ **eguna 1**  
EGUNEZ **Castaño** (J. Etxebarria, 7)
- ✓ **barixakua 2**  
EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)

**GAUEZ BETI**  
**Elorza (J. Gisasola, 18)**

## 1. Etxebizitza

### 1.1. Salgai

- Pisia salgai Jardinetan kalean. 2 logela, egongela, sukaldia eta komuna. 90.000 euro. Aukera bikaina. Tel. 650-628297.
- Pisia salgai Polonia Etxebarria kalean. 4 logela, egongela, sukaldia eta bainugela osatua eta komuna. Despensita eta ganbara. Tel. 670-757393 eta 664-405112.
- Pisia salgai Soroluzen. 2 logela, egongela, sukaldia eta komuna. 60 m<sup>2</sup>. Berriztua, argitsua eta dena kanpora begira. Berogailu urdinarekin 59.000 euro. Tel. 656-758793.
- Etxebizitza salgai, bizitzera sartzeko moduan. 3 logela, egongela, 2 komun, sukaldia berria, 5 horma-armairu eta trasteroa. Igogailua. Argitsua. 130 m. erabilgarri.. Erdikaldean. Tel. 626-203838 eta 699-495249

### 1.2. Errentan

- Pisia hartuko nuke alokairuan. Tel. 608-588444.
- Pisia hartuko nuke alokairuan Eibar edo inguruan. 500 eurotik behera. Tel. 632-337083.

## 2. Motorra

### 2.1. Salgai

- 200cc Maxi Scooter Piaggio-Vespa motorra salgai. Kofreekin edo gabe. Egoera onean. 600-700 euro. Tel. 628-521115.

## 3. Lokalak

### 3.1. Salgai

- Jatehea traspasatzen da Eibarren, terraza handiarekin. Tel. 602-130737.

### 3.2. Errentan

- Bulegoa alokagai, bainuarekin. Jantzita. Tel. 600-540684.
- Garajea alokagai San Pion. 28 m<sup>2</sup>. Tel. 652-775746.
- Gazteentzako lokala alokagai Jardinetan, 34an. 132 m<sup>2</sup>. Dena kanpora begira. Berriztua. Legezatzatze proiektuarekin. Etxerik ez inguruan. Tel. 656-756485.
- Marxan dagoen ileapaindegia alokatzen da Eibarren. Prezio interesgarria. Tel. 679-425467.

## 4. Lana

### 4.1. Lan bila

- Neska euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko. Egutero 3 orduz gutxienez. Esperientzia. Tel. 662-283671.
- Neska eskaintzen da arratsaldez nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 626-197217.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxean, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

## 1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

## 2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

## 3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

- Neska eskaintzen da pegorak garbitzeko. Tel. 617-571210.
- Mutila eskaintzen da kamarero jarduteko eta nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 610-619764.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeak garbitzeko. Tel. 631-967238.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko asteburu eta jaiegunetan. Tel. 681-055905.
- Neska eskaintzen da goizez orduka nagusiak zaintzeko etxean edo ospitalean eta garbiketarako egiteko. Erreferentziak. Tel. 652-587259.
- Neska arduratsua eskaintzen da txakurrak ateratzeko edo astebururako txakur kanguru izateko. Tel. 657-728859.
- Emakumea eskaintzen da 09.30etatik aurrera etxean lan egiteko. Tel. 608-588444.
- Neska euskalduna eskaintzen da goizez umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 695-719744.
- Gizona eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 677-101207.
- Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko (baita gaez ere) eta garbiketarako egiteko. Erreferentziak. Tel. 679-910991.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Edozein ordutegitan. Tel. 690-134485 eta 943-740672.
- Gizona eskaintzen da igeltsero, itogin edota edozein gremiotan jarduteko. Gidatzeko bai-menarekin. Tel. 637-207806.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Orduz gabe. Tel. 688-820508.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 626-407923.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. Erreferentziak. Tel. 636-815924.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. Erreferentziak. Tel. 634-748531.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, etxeko garbiketarako egiteko, sukaldari laguntzaile jarduteko... Tel. 634-437852.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. 09.00etatik 16.00ak arte. Tel. 680-808125.
- Mutila eskaintzen da mendian eta lorategietan lan egiteko: motosegarekin, garbiketara... Tel. 690-381698. Fco. Javier.

## 4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

## 5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

## 6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

- Emakume arduratsua eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta bulego edo pegorak garbitzeko. Tel. 653-010861.
- Emakumea eskaintzen da umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 687-114707.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako lanak egiteko. Tel. 639-611454.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 680-973549.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 631-886450.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Esperientzia. Tel. 690-223601.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 631-342874.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 636-815924.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 697-754174.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko (elkartek, pegorak)... Tel. 631-098995.
- Neska eskaintzen da pegorak, soziedadek eta bulegoak garbitzeko. Tel. 638-421827.
- Neska euskalduna eskaintzen da umeak (baita hauei etxeko lanak egiten laguntzeko) edo behar bereziak dituzten pertsonak zaintzeko. Tel. 688-639371.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko Eibar, Ermua eta Elgoibarren. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 639-523390.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta orduka garbiketarako lanak egiteko. Erreferentziak. Tel. 672-442318.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 637-004773.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 638-338816.
- Neska eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta umeak edo nagusiak zaintzeko. Externa. Tel. 631-278618.
- Neska eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta umeak edo nagusiak zaintzeko. Externa. Tel. 646-778839.
- Neska eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta umeak edo nagusiak zaintzeko. Externa. Tel. 629-869572.

## 4.2. Langile bila

- Enpresa mailako ingelesa irakasteko irakaslea behar dugu. Tel. 688-639371.
- Hoteleko harreraren lan egiteko pertsona behar da. Euskera eta ingelesa beharrezkoak. Kontutan hartuko dira hoteleko harreraren esperientzia eta frantzes. Tel. 688-639371. Bidali curriculum: deba@aisiahotels.com
- Kamarera/o eta sukaldaria behar dira, esperientziarekin. Behin-betiko kontratua izateko aukerarekin. Bidali curriculum, argazkiarekin: camareros12345@gmail.com
- Fisioterapeuta eta kiromasajista behar da Eibarko ileapaindegiko baterako. Lan-giro ona. Tel. 678-674250.
- Sukaldaria behar da Eibarko taberna batean. Tel. 943-254060.
- Kamarera/o behar da Eibarko taberna baterako extra moduan. Ezinbestekoa euskaraz jakitea. extraebar2015@gmail.com
- Emakume euskalduna behar da umea zaintzeko. Curriculum bidali argazkiarekin: igreielo@gmail.com

## 5. Irakaskuntza

### 5.2. Eskaintzak

- Euskerazko klaseak ematen dituzte: azterketarako prestaketa, IVAP, HABE, EGA,... Ume eta helduentzat. Baita on-line ere. Tel. 620-608065. Luz Mar.
- Magisteritza ikasten diharduen neska euskalduna eskaintzen da klase partikularrak emateko. Esperientzia. Tel. 686-925897.
- Klase partikularrak ematen dituzte LH eta DBHko edozein ikasgai. Tel. 699-597315.
- Fisika, Matematikak eta Kimikako klase partikularrak eta umeentzako irakaskuntza teknikak ematen dituzte. Gehienez lau laguneko taldeak. Tel. 615-705945. Iratxe.
- DBH eta Batxilergoko Matematikak etaberrretako klaseak ematen dira. 1 eta 3 ikasleko taldeak. Tel. 677-592509. Alberto.
- Euskarazko klase partikularrak ematen dituzte maila guztietan (EGA azterketa, perfilak eta bar prestatzeko). Baita LH eta DBHko gai guztiak ere. Esperientzia. Tel. 645-005943.

## 6. Denetarik

### 6.1. Salgai

- Compex elektroestimuladorea salgai. Ia berrira, gutxi erabilia. Tel. 666-444074.
- Binilozko diskoak, singleak eta LPak erosten dituzte. Tel. 943-572057.
- Bugaboo Camaleon "All Black" edizioa salgai. Egoera ezin hobean. Kapota gorria opari. 500 euro. Tel. 655-709707.

### 6.3. Galdu/Aurkitu

- Irailaren 12an 7-8 neurriko neskaren sudadera beige-a aurkitu nuen Urkizun. Tel. 657-713406.

# Hyundai Tucson Berria

Aldatzea jarrera bat da.



#changeisgood

Aldaketa gure bizitzan zatia da. Sentsazio berriak aurkitzea eta une hunkigarriak bizitzea ahalbidetzen digu. Irudimenaren motorra da. Hyundai Tucson berria jarrera horretatik jaio da. Bere diseinu eta berrikuntza teknologikoek gidaritzaz gozatzeko zure era guztiz aldatzea ekarriko dute.

Esperimentatu aldaketaren indarra  
[www.hyundai.es](http://www.hyundai.es) helbidean

Tucson Berria 18.900€tik aurrera



## OARSO CAR

HYUNDAI KONTZESIONARIO OFIZIAL BERRIA GIPLZKOARAKO

### ELGOIBAR

Olaso Polig., 17

943 74 14 80



Hyundai Tucson Gama

CO<sub>2</sub> Emisioak (gr/km): 119-175

Kontsumo mistoa (l/100 km): 4,6-7,5

Tucson 1.6 GDI (131CV) 4x2 BD ESSENCE-rako gomendatutako prezioa, Penintsulan eta Balearretan (18.900€). BEZ, garrailoa, matrikulazio-zerge, promozio-deskontua, kontzesionarioaren ekarpena, mantenimendu-eskaintza, Hyundai Solución Plana eta Gobernuaren PIVE Plana barne (Gobernuaren PIVE Planaren baldintzak betetzeaz lotuta). Eskaintza aplikagarria gutxienez 60 hilabetetan eta 13.000€ko gutxiengo zenbatekoan Santander Consumer EFC S.A.-ren bidez finantzatuko duten bezero partikularrentzat. Finantza-entitatearen azterketa eta onarpenari lotutako finantziazioa 2015/10/31ra arte balio du eskaintza honek. Erakustetako modeloa: Tucson Style. Mantenimendua ibilgailuaren finantziarioi lotuta. Begiratu eskaintza eta mantenimenduen baldintza guztiak Hyundai kontzesionarioetako sare ofizialean edo [hyundai.es](http://hyundai.es) helbidean.

## Alemana, frantsesa, ingelesa, italiera eta txinera

### Ordutegi bereziak!

- Talde murriztuak mailaka
- Komunikazio klaseak
- 2 egun astean (astelehena eta asteazkena / asteartea eta osteguna)
- 3 ordu astean (goizez eta arratsaldez)
- Cambridge, FCE, CAE eta Proficiency tituluak eskuratzeko prestaketa

2015-2016 ikasturtea urrian hasi eta ekainean amaituko da

## Industry Language Services

Informazioa, matrikula eta ordutegiak

9 4 3 7 4 4 0 4 0

w w w . i l s . e s

# ILS



**EIDER SÁNCHEZ** Policlinica Gipuzkoako nutrizionistak Eibarko zentroan pasatzen du kontsulta eta era pertsonalizatuan artatzen ditu helduen eta haurren obesitate kasuetatik hasi, diabetesa moduko patologia desberdinak dituztenekin jarraitu, eta euren errendimendua hobetu nahi duten kirolarietarako

## “Elikadura on baten gakoa barietatean eta neurribidean dago, beti ere nutrizio-heziketa batetik abiatuta”

**– Zerk arduratzen du gehien zure kontsultan jasotzen duzun jendea?**

Lehen ohizkoa izaten zen nire kontsultara zetorren jendea gehiegizko kilo horiek gaintetik kendu eta euren buruarekin hobeto egon nahi izatea. Baina azken urteotan, jendea gehiegizko kilo horientatik eta fisikoarengatik arduratuta egonda ere, ardura horretan garrantzizko aldaketa eman da. Gaur egun jendeak ardura handiz begiratzen dio osasunari eta bizi kalitateari, eta euretako asko kontsultara etortzen dira osasuna sustatzeko eta hainbat patologietan hobera egiteko lagunduko dizkien elikaduraren inguruko ohitura osasungarriak hartzeko. Kontsultara etortzen dira ere ariketa fisikoa edo kirol jakin bat praktikatzeko dutenak kirol errendimendua hobetzen lagunduko dizkien pautak batzuen bila, euren gorputzetan garrantzi handiko aldaketak izaten dituzten menopausia adinean dauden emakumezkoak, haurdun daudenak, titi-emaileak, elikadura-ondoezak dituzten gaixoak...

**– Zeintzuk dira patologia ohizkoenak?**

Obesitatea eta gehiegizko pisua (helduen eta haurren adinetan) dira gehien ikusten diren kasuak, baina badira ere beste gaixo asko digestio-gaitzekin (gastritisa, ultzera gastrikoak, kolitis ultzeraduna, kolon narritakorra), loa oztopatzen dieten apnea dituztenak, eta diabetesa, hipertentsioa edo dislipemiak dituztenak (hiperkolesterolemia, hipertrigliceridemia), elikadura-jasanezintasunak dituztenak... Guzti horietan nutrizio-pautak garrantzi handia dute patologia horietako bilakaera egokian.


**– Zelako emaitzak izaten dituzte? Jendeak kale egiten du jarraikortasunean?**

Emaitzak oso onak izaten dira, berehala igartzen dute hobekuntza eta horrek ezarritako ohiturekin jarraitzen laguntzen die. Horregatik, mota guztietako kasuak badira ere, jendeak ez du kale egiten jarraikortasunean. Lortutako emaitza onei esker gaixoen motibazio nahiko dute aurrera egiteko euren helburuak erdiesteko bidean, izan pisua jaisteko edo izan hobera egiteko patologia desberdinetako sintomatologian edo bilakaeran.

**– Non dago giltza elikadura on bat eramateko?**

Gakoa nutrizio-heziketan dago. Hau da, gaixoen ikasi behar dute elikadura askotarikoa eta orekatua eramaten, organismoaren funtzionamendu egokirako beharrezkoak diren elikagarri guztiak ekarriko dizkienekin, aldi berean pisua jaisten edo patologia desberdinetan hobetzen lagunduko dizkielako. Horretarako kontsultan asko ahalegintzen gara ohitura osa-

www.policlinicagipuzkoa.com



**Eider Sanchez nutrizionista.**

sungarriak finkatzen, bakoitzari egokitutako aste osorako menuekin, horrela gaixoen ikusi eta ikasi dezaten modu errealista batean zertan datzan ohitura horien ezarpena. Garrantzizkoa da denetarik jan behar dutela ikastea, baina elikagai bakoitza bere neurri zehatzean. Elikadura on baten gakoa barietatean eta neurribidean dago.

**– Zein zerbitzu eskaintzen duzu Eibarko Policlinica Gipuzkoako zentroan?**

Esklusiboki gaixo bakoitzaren neurria landutako nutrizio-plan bat ezartzen da, bertan nutrizio-pautak eta aste osorako menuak sartuz (menu bakoitzerako erosketa-zerrenda barne). Horretarako nutrizio-egoeraren balorazioa, historia klinikoa, elikadura-ohiturak, gorputz-perimetroen neurketak (beharrezkoa den kasuetan) eta gorputzaren pisuaren, gorputz konposizioaren eta metabolismoaren azterketa egiten dira. Gorputz konposizioaren azterketari esker puntu hauei buruzko garrantzizko informazioa eskuratzen da: masa koipetsu guztia, erraietako koipea, masa gihartsua, gihar-masa, gorputzaren ur guztia, hezur-masa, tasa metabolikoa eta adin metabolikoa. Behin nutrizio-plana ezarrita gaixoen jarraipena egiten da, normalki hamabostean behin.



**Policlínica Gipuzkoako Kontsulta Zentroa**  
Ibarkurutze kalea, 2 -EIBAR-  
Telefona: 943 25 61 00

# POLICLINICA GIPUZKOA